

JOSEBA OTONDO alkatea (EH BILDU)

-Joseba Otondo, EHBilduko ordezkari eta alkate jaunari: Zein zentzutan eragiten dio PSIS baten izendatzeak balleko udala eta Batzar Nagusiaren autonomia eta eskumenei?

Eragina erabatekoa da. Hirigintzako eskumenak udalarenak dira eta herri-lurrei edo komunalei buruzkoak Batzar Nagusiarenak. Aroztegiakoa hirigintza egitasmoa da eta proiektua tramitatu zuten lehendabiziko aldian, Nafarroako Gobernuak hala erabakirik, udaletxetik tramitatzea agindu zuen. Alta, oraingoan, aitzineko irizpidearen aurka, Nafarroako Gobernuak PSIS bezala tramitatzea onartu du, udalaren gaineratik; eta hau, bereziki harrigarria da: aitzineko proiektuan 258 etxebizitza egin nahi zituztelako eta oraingoan 230. Hortaz, etxebizitza guttiago izanik, PSIS bezala tramitatzeko arrazoi guttiago. Susmagarria, ezta?

Ba susmagarria izanik, aldekoek hau diote: "baina Aroztegiakoa proiektu internazionala da, eta horregatik PSIS bezala tramitatu behar da". Erantzuna berriz argia: eta zer? Internazionala edo intergalaktikoa izan udalak horrelako proiektu urbanistikoa garatzeko ahalmen teknikoa badu.

Bertzalde, Aroztegiako proiektuak hartzen duen herri-lurrari buruz, gainerako baztandar guztiek zernahi egin nahi dutelarik, Batzar Nagusiaren baimena behar dute. Baina, Aroztegiako kasuan ez, irudiz, beraiek gainerako herritarren gaineratik baitaude.

Hala, Baztango udalak eta Batzar Nagusiak horrelako proiektu baten aitzinean, Baztan errotik aldatuko duen proiektu baten aitzinean deus erratekorik ez badute, zertarako daude? Desegitea hobe.

-Zer da zuretzako garapen jasangarria? Garapen eredu honen aldekoa al zara? Aroztegiako proiektu urbanistikoa garapen jasangarri eredu baten barnean sar daitekeela uste duzu?

Garapen jasangarri edo iraunkorrak definizio argia du: ondotik etorriko diren jendeen beharrak asetzen utziko duen oraingo jendeen garapena.

Definizio hau ez da nik emana, 1.987. urtean lehen aldiz argitaratu zelarik Brutland buru zuen Munduko ingurugiro eta garapenaren batzordeak eskaini zuen. Definizio horretan hiru alderdi ageri dira: ekonomikoa, soziala eta berritasun bezala: iraunkortasuna, denboran iraun behar duenarena eta, hortaz, ingurugiroa kontuan hartu. Batzuk, garapen jasangarri edo iraunkorraren izenean zernahi justifikatzen dute. Baina, serioak baldin bagara eta definizio hori zuzen aplikatzen badugu garbi dago Aroztegiakoa ez dela garapen iraunkorraren barnean sartzen ahal: Baztango lurralde antolaketa hausten du, desberdintasun sozialak

handitzen ditu eta ekonomikoki, horrelako proiektuak egin ahal izateko, lehenago sosa modu itsusian pilotzen dute, kasu honetan gaurgero krak egin duen eta denon artean 9.000 milioi euroekin erreskatatu dugun Caixa Galiciaren bidez. Hori aski ez eta lur-emankorrak artifizializatzen ditu, lur-azpiko urak alferrik erabiltzen eta kutsatzen, mugikortasun motorizatua handitzen... Proiektu hau garapen iraunkorra dela erraten duenak GEZURRA erraten du.

-Baztango herritarrak herri galdeketa bidez proiektuaren aurka agertuko balira, erabaki hau babestu eta defendatuko al zenuke?

Baztandarrak herri-galdetan proiektuaren aurka agertuko balira, erabakia nerea eginen nuke eta nire ardura instituzional eta politikotik erabakia toki guztietan defendatuko nuke. Ez nuke herritarren erabakia bete artio etsiko.

-Zeintzuk dira Aroztegia proiektua egiteak dakartzan onurak eta kalteak?

Hasteko erran behar da Aroztegiako promotoreetako batzuk SICAVetako buruak direla. SICAVak 2 milioi eurotik gorako inbertsio funtsak dira eta, normalki, zergetan diru guttiago pagatzeko erabiltzen dira. Orain gutti Koldo Martinez Geroa Baiko bozeramailea kontent aski zen Nafarroatik SICAV batzuk lekutu zirelako, pentsa! Bada, gure promotoreen kasuan SICAVak dituzte eta beren funts horiengatik %1 bertzerik ez dute ordaintzen. Bertzalde, promotoreen arrimuan zerga iruzurrean harrapatu zuten pertsona dugu eta epaiketa saihesteko 2,5 milioi euroko isuna ordaindu behar izan zuen. Gainera, promotoreetako batzuk 2008an Fuerteventurako La Oliva herrian Aroztegiaren iduriko proiektua bulkatu zuten, parke natural baten ondoan. Proiektua akitu gabe utzi eta urbanizazio fantasma modukoa da orain. Orduko hartan gainera, Fadesa ere nahasirik zegoen, gisa guztietako proiektu inmobiliarioak bulkatzen zituen galiziar enpresa. Aroztegiakoan, hasierako momentuan guttienez, bertze galiziar batzuk ere ageri ziren: Caixa Galicia, arestian erran bezala, herritar guztien artean erreskatatu behar izan duguna. Aroztegiak zer on eduki dezakeen aztertu baino lehen, badago gauza bat: horrelako kontuetan nahasirik dauden promotoreek ez lukete halakoetan ibiltzeko lizentziarik izan behar. Ekonomia garbia nahi badugu, neurri prebentibo bezala, halakoak baztertu beharko genituzke.

Aroztegiak eduki ditzakeen onurei buruz lanpostuak sortuko dituela diote. Iparraldeko Getarin edo Bidarten egon zarete? Aroztegiakoa horrelako eredu sozioekonomikoa da, bazter guztiak urbanizatu eta ondotik lanpostu prekarioak sortu, zerbitzuen sektorean. Hori da nahi duguna? Nik nahiago dut Aldude-Bankarat begiratu, nahiago dut Normandiako landa-eremuetarat begiratu, Austriako mendietarat edo Suitzarat eta hango baliabideen zentzuzko eta arrazoizko erabileran oinarritzen diren eredu

sozioekonomikoak bulkatu: tokiko nekazaritza, eraikuntza, gremioak, saltzaileak, enpresa txikiak, transformazio-industriak, landa-etxeak eta turismo iraunkorra, adinekoak zaintzeko erresidentziak, mendi eta oihan-lanak, garraiolariak, mekanikariak, administrazio publikoko langileak... Herri bizia aktibitate desberdin pila batekin, elkarren artean harremanak eta tokiko ekonomia dinamiko eta dibertsifikatua. Manu Aierdi ekonomiako lehendakariaordea lurralde inteligenteetaz ari delarik, azkeneko hauei buruz ari dela pentsatu nahi dut, eta ez Aroztegiako gisan errekalifikazio hutsean oinarritzen den ereduaren.

Aroztegiak, argi eta garbi orain artiko turismo ereduaren kontra jotzen du. Baztanen erakargarria eta arrakastatsua den turismo eredu dugu. Jendeak hemengo bazterretaz goatzera heldu dira, hemengo herriak eta arkitekura, hemengo kultura eta indentitatea... Aroztegia Baztanek gaur egun eskaintzen duenaren kontrakoena da. Orain ehun landetxetik goiti daude, herri eta familia desberdinetan barreiatuak; 2.000 ohatze inguru eskaintzen dira... Eskonomia aski sozializatua da, eskala txikiak eta banatua. Horren ondoren Aroztegia pilaketa eta kontzentrazioa da: aberastasunaren eta urbanizazioen pilaketa. Funtzionatu dezake, bai; baina ez da eredu. Zeren, zintzoak baldin bagara, Aroztegia hain ona bada, normalena ondotik Zigako Egozkuen bertze bat egitea litzateke, Amaiurko Kisuan, Bozateko Urtsuan, Erratzun... Hori da nahi duguna? Orduan Baztanerat nor etorriko litzateke?

-Inguru horretan etxebizitza behar errealak zein den aztertu da? Etxeak egin ondotik, hutsik geratzeko arriskurik ez al dago?

Lekarozeko etxebizitza beharrak asetzeko aise guttiagorekin aski da. Etxebizitza kolektiborik nahiko bagenu herriko etxe zahar batzuk moldatzen ahalko ziren edo bizpahiru bloke berri egin. Eta unifamiliarrak nahi izanez gero, hamarrek seguru aski izanen litzatekeela. Lekarozek 251 biztanle ditu eta herrian 100 inguru bertzerik ez dira bizi, gainerakoak auzoetan barreiatuak. Hortaz, 230 etxebizitza zertarako? 700 pertsonetako herri berria norendako? Eta, Baztani buruz ari bagara, logikoena herri bakoitzak bere etxe eskaintza egitea da; pentsaezina dena eta inoren burutan sartzen ez dena, Baztango etxe guztiak Aroztegian egin behar izatea litzateke, horrela gutti batzuk aberasteko. Argi eta garbi, Aroztegia ez da baztandarrei buruz pentsatua.